



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

# **“EUSKAL HOTSAK”: EUSKAL HERRIKO MUSIKA-TRESNAK LANTZEKO KONTZERTU DIDAKTIKO BAT**

**GRADU AMAIERAKO LANA**

EGILEA: Pelaez Arruti, Maddi

ZUZENDARIA: Barrena De La Rúa, Nerea

2021

## **LABURPENA**

Gradu Amaierako Lan honen bidez, Haur Hezkuntzako bigarren etapan musika modu ludiko eta dibertigarri batean lantzeko bide berri bat ireki nahi da, proposamen didaktiko baten planteamendua burutuz: kontzertu didaktikoak. Haurrak musikara ez ezik, tradizioa eta bertakoa dugunera hurbiltzeko asmoa duen lan honetan, euskal musika-tresnetan oinarrituriko kontzertu didaktikoa eta gida sortu dira, non hainbat jarduera agertzen diren ekitaldiaren aurretik eta ondoren burutzeko.

*Hitz-gakoak:* kontzertu didaktikoa, euskal musika-tresnak, proposamen didaktikoa, Haur Hezkuntza, Musika Hezkuntza.

## **RESUMEN**

Con el siguiente Trabajo de Fin de Grado, se pretende abrir un nuevo camino para trabajar la música de una manera lúdica en la segunda etapa de Educación Infantil, mediante el planteamiento de una propuesta didáctica: los conciertos didácticos. Con el objetivo de acercar a los niños no sólo a la música, sino también a la tradición ya lo local, se ha creado un concierto didáctico y una guía basada en los instrumentos musicales vascos, en la que se muestran diversas actividades para antes y después del evento.

*Palabras clave:* concierto didáctico, instrumentos musicales vascos, propuesta didáctica, Educación Infantil, Educación Musical.

## **ABSTRACT**

With the following Final Degree Work, the aim is to open a new playful way to work music in the second stage of Early Childhood Education, by proposing a didactic proposal: didactic concerts. In this work, which aims to bring children closer to music, a didactic concert has been created with its respective guide, based on basque musical instruments. In it, in addition to having the opportunity to enjoy a musical event, various activities are proposed both before and after the concert. It is an excuse to bring children not only to music, but also to tradition and the local.

*Keywords:* didactic concert, basque musical instruments, didactic proposal, Early Childhood Education, Musical Education.

## **AURKIBIDEA**

1. SARRERA	1
2. JUSTIFIKAZIOA	3
3. MARKO TEORIKOA	5
3.1. GAIAREN GARRANTZIA	5
3.1.1. Zergatik hezkuntza musikala Haur Hezkuntzan?	5
3.1.2. Kontzertu didaktikoak	8
3.1.3. Ipuin musikala	9
3.1.4. Euskal musika-tresnak	10
Alboka	11
Dultzaina	12
Ttun-ttuna	13
Trikitia	14
Txalaparta	14
3.2. ARLOAREN EGOERA	15
4. HELBURUAK	17
5. METODOA	18
6. EMAITZAK: PROPOSAMEN DIDAKTIKOA	19
6.1. PROPOSAMEN DIDAKTIKOAREN HELBURUAK	19
6.2. ZANTZU OROKORRAK	19
6.3. "EUSKAL HOTSAK"	20
6.4. ESKALETA	22
6.5. JARDUERAK	23
6.5.1. Aurretiko jarduerak	23
6.5.2. Ondorengo jarduerak	25
7. ONDORIOAK	27
8. MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK	30
9. ERREFERENTZIAK	31
10. ERANSKINAK	35

## **1. SARRERA**

Gratu Amaierako Lan honetan, Musika Hezkuntzak Haur Hezkuntzako etapan duen garrantzia eta pisua balioetsi nahi izan da. Haurrak musikara era ludiko eta dibertigarri batean hurbiltzeko tresna bat eskaintzean fokua jarriz, kontzertu didaktiko baten proposamena burutu da, umeei musikarekiko gertuko eta benetako esperientzia bat izatea helburu duena.

Haurrak, jaiotzen den momentutik bibrazioz eta soinu inguraturik dagoen heinean, jadanik badu musikarekin harremana. Ez da ahaztu behar haurraren lehen adierazpen-moduetariko bat soinuaren bidez izan ohi dela, haur guztiek berezko duten gaitasuna izanik.

Aurreko ideari tiraka, ikusiko dugu nola Sarget edo Trías gisako autoreek defendatzen duten ezinbestekoa dela haurrek haien bizitzako hastapenetatik musikarekin lotura estu eta zuzena edukitzea garapen integral bat bermatu dadin, estimulazio goiztiar batek haurraren beharrak asebetetzeko eta gaitasunak behar bezala garatzen hasteko gaitasuna baitu.

Horrekin batera, behar bezalako Musika Hezkuntza bat jasotzeak haurrari ekar diezazkiokeen onurak ere aipatzen dira, eta zehazki entzuketara musikalak Haur Hezkuntzan duen papera jorratzen da. Pérez edo Barbarrojaren eskutik ikusiko dugu nola askoren usteen aurka, entzutea ez dela jarrera pasiboa eskatzen duen zeregin xume bat, baizik eta haur bakoitzarengan prozesu bakar eta konplexua sortzen duen ekintza dela.

Musika Hezkuntzaren oinarri horietatik abiatuz, kontzertu didaktikoen ezaugarriak eta berezitasunak ikertu dira. 50eko hamarkada inguruan sorturiko proposamen berritzaile horrek eskaini diezazkigukeen aukerei buruz jardungo da, bai eta zuzeneko ekitaldi musikala gisa haurrei ekai diezazkiokeen onuren inguruan ere. Gainera, musika modu ludiko batean irakastearen funtsezko ideia kontuan izanik, haurren gozamina balioan jartzen da, ezagutza eta ideien transmisioaren gainetik. Horretarako, ipuin musikalen errekurtsioa ikertuko da Arguedas edo Palacios bezalako autoreen lanei erreparatuz.

Era berean, gure kultura eta identitatearen ikur diren hainbat euskal musika-tresna ezagutarazi eta balioesteko asmoz, trikitia, dultzaina, alboka, ttun-ttuna eta txalaparta ikertu dira, horien sorrera, ezaugarriak eta erabileretan harakatuz.

Behin marko teorikoaren oinarriak finkaturik, aztertuko da nola gaur egun badirela hainbat erakunde eta talde haien proiektuetan kontzertu didaktikoak txertatzen dituztenak. Hala ere, haur txikienentzat dagoen eskaintzan hutsuneak nabari izan dira. Guzti horrek, lan honen helburu nagusia izango dena eramatean gaitu: haurrak musikaren soinura hurbiltzea, Musika Hezkuntzaren garrantziaren aldarrikapena egiten den heinean.

Helburu hori lortzeko asmotan, kontzertu didaktiko baten diseinua burutu da, zeinak euskal musika-tresnetan oinarrituriko ekitaldi musikal bat ardatz duen. Horrekin batera, gida bat ere aurkitu ahal izango da, kontzertuaren inguruko hainbat argibide eskaintzeaz gain, ekitaldiaren aurretik eta ondoren burutzeko hainbat jarduera biltzen dituena.

## **2. JUSTIFIKAZIOA**

Gratu Amaierako Lan honek musikaren garrantziaren inguruko aldarrikapen bat izatea du helburu. Egungo ikasgeletako egoera orain dela urte batzuetakoekin alderatuz gero, egia da gaur egungo hurrekin musika arloa gehiago lantzen dela; hala ere, horrek ez du esan nahi konformatu beharra dagoenik. Oraindik ere, bada Musika Hezkuntzak entretenimentu gisa soilik balio duela uste duenik.

Eskoletan, musika jarduera artistikoarekin lotua egon ohi da eta eskola-ordutegiaren barruan ordu gutxi eskaintzen zaizkio. Honek lotura estua du Haur Hezkuntza arautzen duen curriculumarekin, non Musika Hezkuntzaren inguruko pintzeladaren bat ikus daitekeen han eta hemen, baina benetan arloan sakontzeko aukerarik eskaini gabe. Beraz, gurean, esan daiteke musika arloak gainontzeko ikasgaien balio eta baldintza berdinak lortzeko borrokan diharduela, behingoz behar duen garrantzia eta lekua lortzeko asmoarekin.

Haurrak, jaiotzen den unetik, musika oso gertu bizi du. Are gehiago, jaio aurretik ere jadanik gai da bibrazio desberdinak hautemateko, hau guztien berezko gaitasuna baita bibrazio horiek entzuteko abilezia. Horien aurrean, haurrek mugimenduak sortu ohi dituzte; hots, esan daiteke mugimendu horiek direla haur batek musikarekiko dituen lehen erreakzioak. Gainera, haur txikiei erreparatuz gero, askotan ikusi ahal ditugu hots desberdinak ateratzen edo erritmo bati hanka zein eskuen mugimenduekin laguntzen.

Hori horrela izanik, ezin uler daiteke Musika Hezkuntzari behar adinako balioa eta garrantzia ez ematea. Eskoletan, eta oro har, hezkuntza osoan izan ohi duen protagonismo gutxi hori, haurrek eta familiek etxean, musika eskoletan eta bestelako jarduerekin orekatu beharra izaten dute. Askorentzat, musikak izan beharra duelako merezi duen lekua euren seme-alaben bizitzetan.

Gurean, adibidez, aita musikaria izanik, jaio ginenetik izan dugu musika entzuteko aukera. Etxean ez da inoiz falta izan halako edo bestelako musika entzuteko aitzakiarik; gehiago esanda, ez dugu gure bizimodua musikarik gabe ulertzen. Horiek izan dira hastapenak, etxeokak, eta hor sortu zen musikarekiko maitasun nahiz errespetua. Musikarekiko grin horrek handitzen zirauen eta musika eskola, abesbatza eta musika-talde desberdinetan egotea ekarri zuen horrek. Ikastolan somatzen nuen hutsune hori betetzeko bidea izan nuen. Egia da urte asko igaro direla ordundik eta gaur egun ez diodala guzti horri denbora berdina eskaintzen, baina ala ere, jarraitzen dut horretan eta musikak nire bizitzan berebiziko garrantzia izaten jarraitzen du.

Horrelako testuinguru batean hezi izanak, esperientzia musikal anitz bizitzea ahalbidetu izan dit, eta zorionekoa sentitu izan naiz beti. Zehazki, hori izan da lan honen ardatz edo muina. Haurrak musikarekiko interesa galtzen ari direnaren sentsazioa izan ohi dut batzuetan, behar eta merezi duen balioa ez eman izanagatik. Zergatik ez eskaini umeak modu dibertigarri eta berri batean musikara hurbiltzeko tresna bat?

Helmuga horretara iristeko kontzertu didaktikoa aukera paregabea izan daitekeela deritzot eta horregatik sortu nahi izan Haur Hezkuntzako bigarren etaparako kontzertu didaktiko bat. Gainera, hain mundu globalizatuan bizi garen honetan, bertako kulturaren parte diren euskal musika-tresna anitz ezagutarazteko aukera ere aprobeztatu nahi izan da, haurrak tradizioa eta kulturara modu hezitzaile baina nagusiki ludiko batean hurbiltzeko asmoarekin. Hurrei ikusarazi behar diegu musika ez dela zaila edo helduena den zerbait, baizik eta guztiona den zerbait dela.

*“La música es una cosa amplia, sin límites, sin fronteras, sin banderas.”*

(León Gieco)

### **3. MARKO TEORIKOA**

#### **3.1. GAIAREN GARRANTZIA**

##### **3.1.1. Zergatik hezkuntza musikala Haur Hezkuntzan?**

Musika haurren bizitzako osagai garrantzitsua dela ukazina da, euren egunerokotasuneko parte izanik. Haurra jaiotzen den momentutik musika ama eta umearen arteko komunikazio-tresna intuitibo bilakatzen da; hots, haurrek txikitatik dute musikarekin kontaktu estua. Jadanik jaiotze aurretik ere hasten den kontaktua da. Gaur egun badakigu fetuak barnealdeko nahiz kanpoko soinuaren bibrazioa entzun eta sentitzen duela haurdunaldiaren 24 eta 30 astean artean. Haurrek, bibrazio horiek atzematen dituztenean, mugimendu bidez erantzuten diete; beraz, esan daiteke mugimendu horiek direla haur batek musikarekiko dituen lehen erantzun edo erreakzioak (Akoschky, Alsina, Díaz, Giráldez, 2009).

Bibrazioak entzuteko abilezia haur guztiek duten berezko gaitasuna da. Oro har, edozein haur ikus daiteke oinak edo eskuak mugitzen musika entzutean, bere erritmoarekin bat egin nahian, eta horrek erritmoaren zentzu naturala baieztatzen du. Horrez gain, zentzu melodikoa ere jarraitzen dute haurrek, haur txikientzat errazagoa baita soinuak erreproduzitzea hitzak baino (Trias, 1981; 55.or): *“Recordemos que la primera forma de expresión del niño es a través del sonido.”*

Hori horrela, haurren lehen urteetan musikak izango duen papera ezinbestekotzat jo daiteke, arlo musikaleko gaitasunak eskuratzea ez ezik, pertsona gisa eboluzionatzea ere ahalbidetuko baitio. Musikak haurrari eskaintzen dion esperientziak haurren bizitza aberastea ahalbidetzen du, oreka emozionala nahiz soziala garatzen lagunduz (Sarget, 2003). Ballesteros eta Garcíak (2010) azaltzen dute denboran atzera begiratzea besterik ez dagoela ikusteko jadanik gure aiton-amonen garaian haurrek nola inguratzen ziren musikaz. Gure arbasoek sehaska kantak abesten zituzten haurtxoak lasaitzeko, euren mantal gainean esertzen zituzten melodia eta erritmo desberdinekin jolasteko eta kanta desberdinez baliatu ohi ziren ezagutza desberdinak transmititzeko; hala nola, zenbakiak, ostadarraren koloreak, asteko egunak, etab.

Behar bezalako hezkuntza zuzen bat ez edukitzeak ondoren eragina izan dezake haurren musika-gaitasunaren garapenean (Pérez-Aldeguer, 2012). Horregatik, nahitaezkoa da kontuan edukitzea haurren familia nahiz hezitzaileek hezkuntza musikalaren



garrantzia presente eduki behar dutela, asko baitira musikak norbanakoari ekar diezazkiokeen abantailak. Honenbestez, musika-hezkuntzaren eskola arrakastak lotura zuzena du hein handi batean hezitzaileak edukiak eta esperientziak hautatu, antolatu eta sekuentziatzeko moduarekin (Bernal, 2005). Sarget-en (2003) esanetan, ezinbestekoa da musikak haurra lehenbailehen inguratzea, estimulazioa zenbat eta lehenago izan orduan eta hobeto asebeteko baitira haurrak soinuak, mugimenduak eta erritmoak sortzeko dituen beharrak. Musika-esperientziak sustatzea beharrezkoa da, haur txikiek musikaren aurrean erantzuteko duten berezko gaitasun horri jarraipena ematea baitakar, sormen- eta adierazpen-gaitasuna aberastuz (Díaz, 2004).

Díaz-ek (2005) dio, gizakiak mundua zentzumenen, sentimenduen eta adimenaren bidez ezagutzeko trebetasuna duen heinean, musika-hezkuntza funtsezkoa izango dela prozesu integratzaile horretan. Zer esanik ez Haur Hezkuntzan eduki ditzaken hainbat eta hainbat onura, etapa hori osatu eta aberastea lortuz.

Musikak harridura nahiz errealitate eduki handia du, bere hezkuntza ikuspegiari dagokionez; izan ere, zentzu estetikoan ez ezik, ingurune sozialean ere eragiten du. Askok uste dutenaren kontra, musikak ez luke haurra dibertitzeko soilik izan behar, zentzumena eta izpiritua heztea laguntzen duen elementu kultural baten ezaugarriak bere gain hartzen baititu (Trias, 1981).

Pérez-Aldeguerrek (2012) aipatzen duenez musikaren bidez alfabetatze eta hizkuntza gaitasunen garapena errazten da, baita hiztegia zabaldu eta entzumen hezkuntza garatzen lagundu ere. Díaz-ek (2005) ere azpimarratzen du txikitatik musika lantzea bikaina dela ikasleen gaitasun kognitiboak garatzeko eta musikaren irakaskuntza entzumen prozesuaren garapena; memoria; irudimena; psikomotrizitatea eta adierazpena nahiz komunikazioa bultzatzen laguntzen duen hezkuntza ekintza dela.

Pérez-ek (2003) dio musikarekiko harreman errazena eta ohikoena entzumenaren bidez sortzen dena izan ohi dela. Pentsa daiteke entzule soil batek burutu beharreko lana sinplea eta garrantzia handirik gabekoa dela, baina errealitatea oso desberdina da; entzuketa batek pertsona bakoitzarengan prozesu konplexua eta bakarra eragiten du.

Berdintsu gertatzen da hitzezko hizkuntzarekin, zeinak komunikaziorako tresna bat eskaintzeko xedea duen. Gizakiok desioak, egoerak, ekintzak edo emozioak adierazteko berezko beharra dugu eta komunikatzeko gaitasuna bizitza osoan zehar garatzen doan ezaugarria da; horregatik, ezinbestekoa da lehen haurtzarotik haurrari eredu eta estimuluz

beteriko testuinguruak eskaintzea, modu naturalean eta imitazioz ikasten baitu (Santamarina, 2011).

Hizkuntza-arloa edozein izanik ere, ikaskuntza-prozesu oro era guztietako informazioa igortzen duen inguruko fisiko eta sozialean gertatzen da. Inork ez ditu hitzezko hizkuntzaren edo hizkuntza musikalaren printzipioak zehazki irakasten, eta hala ere, estrukturak eta funtzionamendurako oinarriak barneratzen dira horiek arautzen dituzten oinarrien kontzientzia handirik eduki gabe (Romea, 1996).

Aurrekoarekin bat egiten du Barbarrojak (2009), honakoa esanez:

“A diferencia de la actitud activa que adopta el niño/a frente al ritmo, la actitud ante la audición de canciones es receptiva. Es fundamental que se combinen ambas, es decir, que el niño/a sea activo y receptivo al mismo tiempo. Podemos incorporar al sonido nuestros movimientos de pies y de manos, flexión de rodillas, balanceos...

Las canciones son la forma más viva, fácil y espontánea de practicar la música. Desde los más elementales tarareos infantiles hasta las más elaboradas formas, las canciones ofrecen al niño/a un sinfín de posibilidades de expresión musical.”

(Barbarroja, 2009; 5. or.)

Entzumen-hezkuntzak haurrak dituen musika-gaitasunak deskubritzea proposatzen du, bere adierazpen-gaitasuna garatzea, bere irudimen- eta sormen-gaitasunen alde eginez (Barbarroja, 2009). Entzumen estimulazioa ezinbestekoa da haurraren garapenerako, entzumenaren bidez arreta, kontzentrazioa, hizkuntza gaitasuna, komunikazioa, trebetasun sozialak eta ikaskuntzaren hobekuntza lantzen baititugu, besteak beste (López eta Nadal, 2018).

Haur Hezkuntzan, ikaskuntza hori jolasaren bidez egin beharrekoa dela dio Barbarrojak (2009); hots, jokoak garapenaren oinarria izan behar du, hezkuntza musikalak guztiz ludikoa izan behar duelako. Irakasle ororen lana izango da tokian tokiko ikasgela bakoitzeko testuingurua nahiz errealitatea kontuan edukiz, gehien egokitzen diren ekintza edo esperientzien hautua egitea. Esperientzia musikalek irakasteko behar dute izan, baina gozamenari ere lekua utziz betiere. Horretarako bidea eskaintzen du kontzertu didaktikoa deritzon proposamen berritzaileak, hain zuzen ere.

### 3.1.2. Kontzertu didaktikoak

Proposamen berritzaile bati buruz dihardugu, baina atzera begiratzuz gero ikus daiteke kontzertu didaktikoaren ideia ez dela berria. 1950eko hamarkadan jadanik Leonard Bernstein aitzindari izan zen, New Yorkeko Orkestra Filarmonikoarekin batera gazteentzako kontzertuak telebistaz emititzen hasi baitzen (Pérez, 2003). Esan daiteke orduan hasi zirela kontzertu didaktikoen oinarri nahiz helburuak finkatzen.

Baina, zer dira kontzertu didaktikoak? Zer eskaintzen digute? Azpimarragarria da musikariei publikoarekin harremanetan jartzeko ematen zaien aukera, musikarekin duten harreman pertsonala sakondu dezaten. Aukera ematen die baita ere entzuleei, obra bat publikoarenganaino nola iristen den hautemateko, sormen prozesuetatik abiatuta, heltzen den azken produkturaino. Horrez gain, hezitzaileentzat aukera bikaina eta eraginkorra izan daiteke ikasleak modu zuzen batean sorkuntzaren eta interpretazioaren aurrean jartzeko. Zalantzarik gabe musikariek, publikoak eta hezitzaileek hiruko harreman bat osatzen dute, funtzio desberdina betetzen duten arren balio bera dutenak (Hentschke, 2009).

Bernstein-en (2018) liburuan aipatzen den moduan, musikari eta entzuleen artean sortzen den harremana informala da eta ondorioz publikoak musikariengandik, eta oro har musikatik, hurbil sentitzeko aukera du. Konpositoreak hainbat gazteri galdetu ohi zien ea musikara hurbiltzeko balio izan ote zieten bere kontzertu didaktikoek. Gazteen erantzuna baiezkoa izan ohi zen, musika ez dela hain zaila, helduena edo konplikatu den zerbait aldarrikatuz.

Pérez-en (2003) esanetan, ongi egituraturiko kontzertu didaktiko batek musika edozein hartzailearen eskura jartzea ahalbidetu behar du. Praktika kultural gisa izendatzen ditu egile honek, ilusioa eta pazientzia bere gain hartzen dituztenak. Didaktikoak diren heinean, eduki zein helburu batzuk jarraitu beharko ditu eta horrekin batera, oinarri batzuk kontuan hartzea ezinbestekoa izango da. Lehenik eta behin, ekintza anitzez osaturiko programazio bat izan beharko du; bigarrenik, kontzertuaren unea, non arreta errepresentazioan eta publikoaren parte-hartzean oinarritzen den; eta azkenik, ebaluazioa edo jarraipena.

Ekitaldi musikalek, gutxi gorabehera, 45 minutuko iraupena izan behar dute, eta entzuleen ezaugarrietara egokituak egon. Aurkezlea edo animatzailea izango da musikak esandakoa komunikatzen duena, publikoa entzumenaren bidez gidatzen duena, musika

pieza oro ulertzen laguntzeko asmoz. Bere lana ez da klase bat ematea, baizik eta kontzertua dinamizatzen ahalegintzea, esperientzia didaktiko bat izan dadin. Modu horretan, interpretatzaile taldea tresna pedagogiko oso baliotsua bihurtzen da.

Kontzertuak, entzuleentzat erronka nahiz estimulua izatea du helburu, entzule pasiboan ordez aktiboak bilatzen dituenak. Une hori aparteko zerbait da, berezia, magikoa, isila eta barne-jarduera handikoa; baina horrek ez du esan nahi aspergarria izango denik. Xede nagusia guztiek musika ahalik eta modu onenean gozatu ahal izatea da; honenbestez, esperientzia eta gozamina edukien transmisioaren gainera daude beti.

### **3.1.3. Ipuin musikala**

Entzutea eta kontatzea gizakion oinarrizko beharrak dira; honenbestez, literaturak sentsibilitate estetikoaren sustatzen laguntzen du, modu ludiko eta didaktiko baten bidez (Montoya, 2002). Ipuinek haurrei irudimena erabiltzeko aukera ematen diete. Irudimen horrek, pentsamendu eta hizkuntzaren oinarri eta euskarri gisa funtzionatzen du, sormena aktibatzea ahalbidetuz (Fernández, 2010).

Alde batetik, literatura garrantzia handiko hezkuntza baliabidea izan ohi da, batez ere Haur Hezkuntzan, irakasleek etengabe erabiltzen duten tresna didaktikoa izanik. Helburu, eduki eta ezagutza desberdinak modu ludiko eta sinpleak transmititzea ahalbidetzen du. Bestalde, Muñoz-ek (2002) azpimarratzen du musikak haurren egunerokotasunaren parte izan behar duela, hizkuntza arloan, buruz ikasteko gaitasunean eta eremu sozial zein afektiboan eragina duelako.

Arguedas-ek (2006) dio, literatura eta musika, biak ala biak, komunikazioaren sinonimo direla eta ezin hobeto lotu daitezkeela. Musika eta ipuinaren binomioak ipuin musikala deritzona osatzen du. Encabo eta Rubio-k (2010), narrazio musikalizatu gisa definitzen dute ipuin musikala. Horien arabera, narrazioak indar handiago eskuratzen du egoera konkretuak, emozioak, ekintzak, mugimenduak edo pertsonaiak soinuaren bidez errepresentatzen direnean.

Haurren garapen kognitiboan, afektiboan eta psikomotorrean eragin positiboa du, helburua umearen garapen integrala sustatzea izanik. Rodríguez-ek (2016) bat egiten du aurreko bi autoreekin esandakoarekin, honako hau azpimarratuz: adierazpen plastikoa,

linguistikoa, gorputz adierazpena nahiz dramatizazioa garatzen lagundu dezake. Hori bai, plazera eta zentzu ludikoaz ezin gara ahaztu.

Palacios-ek (2000), 5 funtsezko elementu atxikitzen dizkie ipuin-musikala osatzen duten bi arteei: lehenik, soinua; ahotsak pertsonaiak desberdintzen dituen heinean, musikak instrumentuz aldatzen du. Bigarrenik, isiluneak; lasaiak, dramatikoak, mistikoak. Hirugarrenik, erritmoa. Laugarrenik, esaldiak; iraupena eta intonazioa, atsedanak eta inflexio puntuak, asmoa. Eta azkenik, forma; nola erlazionatzen den aurreko guztia, nola funtzionatzen duen modu logikoan.

Ipuinak nahiz musikak, poztasuna eta gozamina eragiten dute eta aldi berean esperientzia didaktikoak eskaintzen dituzte. Era berean, haurrengan sortzen duten lilura efektuak kontzentrazioa, hausnarketa eta parte hartzeko ohiturak suspertzen ditu eta hori gutxi balitz, istorioaren kontakizunak eta entzuketa musikalak irudimenaren mugak zabaltzen dituzten heinean, fantasia bultzatzen dute (Palacios, 2000).

#### **3.1.4. Euskal musika-tresnak**

Orokorrean, Haur Hezkuntzako etapan benetako eta kalitatezko musika-tresnak ikusi eta ezagutzeko izaten dituzten aukerak nahiko eskasak izan ohi dira. Gainera, egotekotan, kutxa txinatarra, triangulua edo xilofonoa bezalako instrumentuak aurkitu daitezke gaur egun ikasgeletan, baita gitarra edo pianoa ere.

Mundu globalizatu batean bizi garen heinean, lekuko kulturak euren nolakotasunak galtzen ari dira. Euskal Herrian soinu tresna ugari erabili izan dira historian zehar, eta horietako batzuk bertako ikur izatera iritsi dira. Herrien nortasuna gehien adierazten duen elementua, bere herri kultura da, eta horren zati garrantzitsuenetako bat musika da.

Hala ere, euskal kulturako eta tradizioko ondarea sustatu eta suspertzea gure Hezkuntzaren ardatz den honetan, badirudi Euskal Herriko musika-tresnek ez dutela nahi bezainbesteko presentziarik. Beltran-en (1995) esanetan, gaur egun, bertako zenbait musika-tresna ia ezezagunak dira bertakoentzat ere.

Musika-tresna horien lanketak, haurrak Euskal kultura eta bertako musikara hurbiltzea ez ezik, soinuaren ezaugarri desberdinak ezagutu eta horietan sakontzen hastea ere ahalbidetzen du; hala nola, altuera, tinbrea, erritmoa edota luzera.


Hori horrela izanik, lan hau burutzeko, ondorengo bost euskal musika-tresnak aukeratu dira:

### Alboka

Nagusiki, Bizkaia eta Gipuzkoa aldean erabili izan den instrumentua dugu alboka. Haizezko instrumentua da, egurrezkoen familiakoa eta behi adarrez eginiko bi hodiz osaturikoa. Adar handia eta txikia (ahokoa) ditu, uztarri batekin lotuak. Honen gainean, hainbat zuloko bi kanabera egoten dira: ezkerrekoarekin (bost zulokoa) doinua ematen da eta eskubikoarekin (hiru zulokoa) lagundu egiten zaio. Soinua sortzeko prozedura berezia du: adar txikiaren barnean bi fita izaten ditu eta horien mihi bikoitzaren bibrazioaren bidez sortzen da hotsa. Instrumentu bikoitza da; bi soinu-tresna direlako, batean edo erantsita jarrita.

Euskal Herrian oso ezaguna izan arren, jatorriz ez da bertakoa. Europa, Asia eta Afrikako leku desberdinetan aurki zitekeen antzina eta ez dakigu noiz iritsi zen Euskal Herrira. Hala ere, idazki desberdinetan aurkitu daitekeenez, lehen agerpenak 1443. urte aldean izan ziren.

Musika-tresna honen soinua gaitaren antzekoa da. Normalki, panderoarekin laguntzen da eta jota edo porrusalda dira ohiko abesti motak. Jotzerakoan arnasketa teknika berezia erabiltzen da: arnasketa zirkularra. Albokak ez du haize erreserba gordetzekorik eta horregatik albokariak haizea hartu behar du botatzen duen bitartean (Beltrán, 2021a). Azpimarratzekoa da gaur egun hain ezaguna den Juan Mari Beltrán albokaria.



## Dultzaina

Dultzaina haizezko musika-tresna da, egurrez eta metalezko uztaiez eginikoa. Euskal Herrian ezagutzen diren mihi bikoitzeko soinu-tresnen artean, eboluzionatuena eta ezagunena da. Euskal Herrian, oso instrumentu garrantzitsua da Nafarroan eta Araban. Gipuzkoan eta Bizkaian ere erabiltzen da, baina neurri txikiagoan. Mihi bikoitzeko instrumentuen barruan, gurean aldera desberdinak izan ohi ditu: Zubero aldeko txanbela eta hegoaldean dultzaina eta gaita izenekin ezagutzen direnak. Espainian zehar beste leku batzuetan ere erabiltzen da, nahiz eta beste izen batzuekin ezagutu.

Zurezko konizidade irregularreko tutuan tonu aldaketarako zortzi zulo izan ohi ditu: zazpi aurrealdean eta bat goiko atzealdean. Dultzaina guztiek beste bi zulo dituzte alboetan, biak parean. Hauetatik bukaerara dagoen tutu zatiak bozgorailu funtzioa betetzen du. Tutuaren goiko muturrean mihi bikoitzeko pita du, kanaberazko bi mihi metalezko tudel izeneko tututxoari dituelarik. Tudelak mihiak eta tutua lotzen ditu, eta lehenengoan hots bibrazioak tutura bideratuz.

Baserri girokoa denez, belarriz jo ohi zen XX. mendearen bukaeralderaino. Ezkontzetan, inauterietan eta herri txikietako erromerietan entzun ohi da, orokorrean atabalak lagunduta. Dultzaina eta danborra izan da toki eta urte askotan gehien ikusten zena, baita panderoarekin ere. Gaur egun, erromerietan eta dantza talde askotan zabaldua dago eta bi dultzaina eta danborrak osaturiko taldea da arruntena. Jose Sudupe "Montte" dultzainero eta dultzaina egile ezaguna izan da (Beltrán, 2021b).



## Ttun-ttuna

Kolpaturiko hari-instrumentuen familiako instrumentua da. Kordofonoen familiakoa da eta zurezko erresonantzia kaxa bat du, bertan goitik behera tenkaturiko sei hari aurkitzen direlarik. Aurrealdean bizpahiru irekiune izaten ditu, soinua ateratzeko leiho modura. Ttun-ttu izenak, ateratzen duen soinuaren onomatopeia iradokitzen du. Hala ere, Euskal Herrian zehar beste izendapen batzuk ere izan ditu; hala nola, danburia edo salterio. Ustez, Frantzia hegoaldetik iritsitako musika-tresna da ttun-ttuna.

Goi Aragoi inguruan chicotén izenez ezagutzen da eta txilibituarekin batera interpretatu ohi da. Pirinioen iparraldean, aldiz, tambourin basque izendapena da nagusi. Pirinio aldeko musika-tresna da erabat eta Euskal Herrian bere erabilera hedatu bazen ere, ekialdeko zonaldera mugatu zen, bereziki Zuberoan. Hungaria eta Errumania aldean hain ezaguna den zinbaloaren antz handia du, hori ere makilekin kolpatu beharreko instrumentu kordofonoa izanik.

Hiru zuloko txirula batekin batera jo izan ohi da, tresna bikotea osatuz. Esku batekin txirula jotzen den bitartean, beste besoarekin ttun-ttuna bularraren kontra eutsita, makilarekin hariak kolpatzen dira erritmoa eta oinarri harmonikoa emanez. Honenbestez, bi funtzio ditu: alde batetik, txirulaz ateratako doinuaren erritmoa laguntzeko baliatzen da eta, bestetik, etengabeko baxu modura funtzionatzen du.

Zuberoan ttun-ttunak atzerakada izan zuen XX. mendean. Hala ere, 1980 hamarkadatik aurrera pixkanaka suspertzen joan da eta gaur egun Zuberoako emanaldietan maiz ikusi daiteke; hala nola pastoral eta maskaradetan. Pierre Errekalt dugu Zuberoako azken egile zaharra (Aranburu, 2021).





## Trikitia

Eskusoinu txiki hau, botoidun akordeoi diatonikoa da. Hauspo baten bidez haizea bidaltzen zaio instrumentuari eta orokorrean, panderoaz lagundurik jotzen da. Argentinako musika tradizionalan “bandoneón” izeneko antzeko instrumentua aurkitu daiteke. Egun garrantzia handia irabazi duen arren, izatez ez da bertakoa. Frantziako eta bereziki Alpeetako eskualdetatik barna sartu zen gurera XIX. mende erdi aldera, Iparraldeko trenbidea eratzeko kontratatu ziren langileen eskutik.

Akordeoi diatoniko hori berehala errotu zen Euskal Herrian, bere deiadar armoniotsua denbora laburrean erromerietan finkatuz eta oraindik ere festa herrikoietan edo kalejiretan oso zabalduta dagoen musika-tresna izaten jarraitzen du. Are gehiago, trikiti txapelketa ugari ere izaten ditugu.

Gaur egun, orokorrean, bi kidez osatutako musika taldeetat ulertzen da trikitixa: soinu-jole eta pandero-jole banaz osatua. Zalantzarik gabe, Euskal Herrian errotuen dagoen herri-musika da eta ia espresuki euskaraz bizi diren eremuei loturik dago, arbasoen tradizioak intentsitate handiz mantentzen dituzten eremuei (Aguirre, 2021). Trikitilari famatuak ditugu Kepa Junkera edo Xabi Solano, besteak beste.



## Txalaparta

Txalaparta, zuzenean kolpatzen den idiofono instrumentua da. Bi euskarriren gainean jarritako zurezko oholek osatzen dute eta antzina ohol bakar batek osatzen zuen arren, ondoren gehienek lau izan ohi zituzten. Gaur egun dozena bat oholez osatutako txalaparta afinatuak ere aurki daitezke.

Musika-tresna honen sorreraren inguruan teoria asko daude eta horietako bat da sagardoa egiteko auzolanaren bukaerako ospakizunarekin harreman estua zuela txalaparta jotzeak. Urnieta, Astigarraga, Hernani eta Andoain aldean ez ziren inoiz falta txalaparta hotsak. Hala ere, bere existentziaren lehen idazkiak 1882. urte ingurukoak dira. Lesaka eta Oiartzun aldean aurki zitekeen txalapartaren oso antzeko instrumentua, baina kasu honetan altzairuzkoa zena: tobera. Gipuzkoako eta Nafarroa eskualde batzuetako baserriar eta nekazari giroan zabaldu zen nagusiki, baina gaur egun Euskal Herri osoan jotzen da, baserri girokoa zena kaletarra bihurtzen joan den heinean.

Txalaparta, tradizioz, lau makilekin jotzen da. Bi jotzaile izan ohi dira, bakoitza bina makilekin. Bata *ttakuna* jotzen aritzen da eta bestea *herrena*. Lehenengoak oreka edo ordena dakar eta bigarrenak, aldiz, desoreka. Bi dira txalaparta jotzeko moduaren eta bere musikaren ezaugarri nagusiak: alternantzia eta bat-batekotasuna (Beltrán, 2021c).

Gaur egun perkusiozko instrumentu gisa erabiltzen da eta hainbat musikaririk haien instrumentazioan sartu izan dute; hala nola Mikel Laboa edo Oskorri. Aipatzekoa da Oreka Tx txalapartari bikotea, txalapartaren hotsa mundu osoko musika estilo desberdinekin uztartuz berritzaile handienetarikoak izan baitira.



### 3.2. ARLOAREN EGOERA

Orokorrean, kontzertu didaktikoez garrantzi handia hartu dute azken urteotan, musika hezkuntzari dagokionez oraindik ere nahiko atzeratuak egon arren. Jadanik 60 urte baino gehiago pasatu dira New Yorken lehen kontzertu didaktikoa zeritzona eman zenetik, baina oraindik ere askotan kostatzen da musikari akademikoak berrikuntzetan murgiltzea (Saenz, 2018).

Musika Hezkuntza indartzeko interesak, erakunde pribatu zein publikoak elkarlanean aritzea ekarri zuen, haurrengana zuzeneko musika hurbiltzeko helburuarekin. Horrela, publiko kritikoago bat sortu nahi zen, musika ulertu eta gozatzeko ahalmena izango zuena.

Gaur egun, gutxi dira kontzertu didaktikoen programazio propioa ez duten Orkestra Sinfonikoak. Baina ez da orkestren kontua soilik: badira antzerki konpainiak, musika taldeak, edota bandak diziplina anitzeko eskaintzak egiten dituztenak. Hala nola, Neonymus-en Interactive Educational Concert proposamen arrakastatsua, edo De Soprano and Harp eta bere 0 eta 16 hilabete bitarteko haurrentzako formatua (Saenz, 2018).

Gurean, esate baterako, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa ikastetxeetarako kontzertu didaktikoak antolatzen hasi zen orain dela urte batzuk, musika sinfonikoa haurrengana hurbiltzeko asmoz. 2007. urtean *Tempo di Martxa!* ekimenarekin hasi ziren euren 25. urteurrenaren aitzakiaz eta gaur egun ere hainbat proposamen desberdin eskaintzen dituzte haurrentzat.

Erakunde eta talde desberdinen proposamenez gain, badira proiektuak hainbat gairi buruzko kontzertu didaktikoak diseinatu eta aurkezteaz arduratzen direnak. Esate baterako, Gasteizen Udal Musika Bandak ikastetxeei zuzenduriko hainbat programa ditu; hala nola, *Musika adierazpena*, *Notak eskolan* edota *Musika munduan*. Bilboko Orkestra Sinfonikoak ere eskaintzen ditu kontzertu didaktikoak eta ABAO opera elkarteak ABAO-txiki proiektua du, zeinak haurrentzako operarekin loturiko proposamenak antolatzen dituen.

Eskolen eta oro har, publiko gazteenaren eskariak gora egin ahala, gaiaren inguruko jakin-mina ere areagotuz joan da. Horrek, kontzertu didaktikoen printzipio, ezaugarri eta nolakotasunak jasotzen dituzten lan eta artikulu ugari argitaratzea ekarri du eta gaurko egunean, informazio anitz aurkitu daiteke.

## **4. HELBURUAK**

Lan honen helburu nagusia, Haur Hezkuntzan hezkuntza musikalak duen garrantzia aldarrikatzea da, horretarako proposamen berritzaile bat eskainiz: kontzertu didaktikoa. Jarduera horren bidez, haurrak musikaren soinura hurbildu nahi dira era ludiko batean, baina aldi berean hezitzailea ere badena.

Emanaldi musikala eta horren inguruan egindako jardueren bidez, hurrengoak lortu nahi da:

- Zuzeneko ikuskizunak ezagutu eta bertan parte-hartzea. Musikarekiko esperientzia aberasgarria izatea, ipuina eta musika uztartzen diren proposamen batekin hurrek musika ekoizpenekin disfrutatzen ikasi ahal izatea.
- Hizkuntza musikalaren barne- nahiz kanpo-elementu eta ezaugarri desberdinak lantzea. Horrekin batera, musika-entzumen pertzepzioaren garapena ere sustatu nahi da.
- Euskal musika-tresnak ezagutzea. Proposamenari esker hurrek instrumentu desberdinak ezagutzeko aukera izango dute, baita haien funtzionamendua, soinua eta erabilera ere. Gainera, bertako musika-tresnak izanik, Euskal Herriko kultura eta ondarea ezagutarazi nahi da, herri desberdinetako ospakizun zein horien bereizgarriei garrantzia emanez.

## **5. METODOA**

Gratu Amaierako Lan hau idazten hasi baino lehen, beharrezkoa izan da gaiaren inguruko informazioa eskuratzea.

Horretarako, lehendabizi, Musika Hezkuntzari eta horren garrantziari buruzko oinarritapen teorikoa bilatu eta analizatu da, zehazki fokua 0-6 etapan jarritz. Ahalik eta informazio gehien eskuratzeko asmoz, iturri desberdinetara jo da: liburuak, lan akademikoak, online aldizkariak, etab.

Marko teorikoa izango denaren oinarriak finkatu ostean, hurrekin musika lantzeko dauden baliabideak aztertu dira eta horrek lanaren muina izango dena eramateko gaitu: kontzertu didaktiko baten diseinura. Aurrenik, Musika Hezkuntzarekin egin den antzera, kontzertu didaktikoen inguruko zenbait lan eta artikulua irakurri dira gaia hobeto ulertu eta kontuan izan beharreko printzipioak ezagutzeko asmoz. Hori lortzeko, benetan interesgarria eta baliagarria izan da kontzertu didaktikoen hastapenera salto egin eta Leonard Bernstein ospetsuaren *El maestro invita a un concierto* liburua irakurtzea.

Ildo beretik jarraituz, kontzertu didaktikoan landuko diren euskal musika-tresnen hautaketa egin da, bai eta horien inguruko informazio bilketa ere. Modu horretan, instrumentu bakoitzaren nondik-norakoak zehaztu dira.

Behin hori eginda, proposamen didaktikoaren diseinua egin da, kontzertu didaktikoaren ardatz Euskal Herriko musika-tresnak oinarri dituen ipuin musikala izanik. Horrekin batera, gida batean bilduriko hainbat jardura asmatu dira, ekitaldiaren aurretik nahiz ostean lantzekoak, zeinak ekitaldi musikalararekin batera kontzertu didaktikoa osatzen duten.

Proposamena aurrera eramateko aukerarik izan ez denez, ondorioak ateratzeko unean diseinu didaktikoa egiteko prozesua eta lorturiko azken produktua eduki dira kontuan. Horrek, lana burutzeko unean sortu izan diren mugak aztertzea baimendu du, baita hurrengorako hobekuntza proposameneren inguruan hausnartzea ere.

## **6. EMAITZAK: PROPOSAMEN DIDAKTIKOA**

Haur Hezkuntzako 5 urteko ikasleentzako proposamen praktiko bat sortzeko helburuarekin, euskal musika-tresna tradizionaletan oinarrituriko kontzertu didaktiko baten diseinua burutu da. Horren bidez, euskal kultura eta ondarean barrena bidaiatuko dugu bertako instrumentu eta haien musika adierazgarrienak entzuteko aukera izanik, musika eta ipuina uztartzen dituen ikuskizun batean.

### **6.1. PROPOSAMEN DIDAKTIKOAREN HELBURUAK**

- Musika ikuskizunetikiko interesa erakustea.
- Haurrak musikara eta , oro har, musikariengana hurbiltzea, horiek balioesten ikasiz.
- Musikarekin gozatu eta disfrutatzeke aukera eskaintzea.
- Ikasleak zuzeneko emanaldiak ikusi eta bizitzeko aukera izatea.
- Erritmo, entonazio eta entzumen gaitasunak hobetzen ahalegintzea.
- Euskal musika-tresna desberdinak ezagutzea, haien soinua entzun eta bereiztea.
- Euskal kultura eta ondarea sustatzea; herrietako jaiak, tradizioak eta horien berezitasunak ikusaraziz.

### **6.2. ZANTZU OROKORRAK**

Gida didaktiko honen bidez irakasleei lan-tresna bat eskaini nahi zaie, kontzertura joan izanaren esperientzia ikasleentzat guztiz aberasgarria izan dadin. Modu horretan, ezagutza berriak eskuratu eta adierapen- eta pertzepzio-gaitasunak garatu ahal izango dituzte.

Proposaturiko jarduerak, kontzertuaren aurretik eta ondoren burutzeko diseinatuta daude. Aurretiko lanean, euskal musika-tresnen eta horien erabileraren inguruko ikaskuntzan oinarrituriko jarduerak izango dira. Kontzertu ondorengo jardueretan, berriz, ikasleek kontzertuan eskuratutako ezagutza eta gaitasunak erakusteko aukera izango dute.

Errespetuzko jarrera bermatzeko asmoz, komenigarria litzateke kontzertu aurretiko lanean minutu batzuk hartzea, ikuskizunean izan beharreko jarreraren inguruko argibide

batzuk azaltzeko. Hala nola, sarrera-irteera modu ordenatuan egitea, eskatzen digutenean soilik parte hartzea edota ikuskizunean zehar isiltasuna mantentzea.

Ildo beretik jarraituz, hurrei eskatu ahal zaie kontzertuaren piezen amaieran musikariak txalotzea. Modu horretan, errespetua eta eskertza transmititu nahi zaie, beren lana aitortzeko eta balioesteko. Gainera, egindako lana gustukoa izan dela eta publikoa gustura sentitu dela helaraztea ahalbidetzen du, sentsazio positiboak interpretari transmitituz.

### **6.3. “EUSKAL HOTSAK”**

Mikel izeneko gaztetxoa da istorio honetako protagonista eta aurkezlea. Musika asko gustatu izan zaio beti, batez ere bertakoa, euskalduna. Trikitia eta panderoa oso ongi ezagutzen ditu, adibidez, baina horiek ote dira bertakoak ditugun musika-tresna bakarrak?

Euskal Herriko ospakizun eta txoko desberdinetan barrena bidaiatuko du Mikelek. Pertsonaia desberdinak ezagutzen joango den heinean, alboka, trikitia, dultzaina, txalaparta eta ttun-ttuna deskubritzeko aukera izango du.

Lana hobeto ulertu ahal izateko, funtsezkoa da agerraldi desberdinak, eta baita instrumentuak nola interpretatuko diren azaltzea.

#### 1. agerraldia:

Mikel ageri da bere etxean musika entzuten, euskal musikadun CD bat hain zuzen ere. Ohartu da, ia abesti guztiak trikiti eta panderoz osaturik daudela eta bere buruari galdetzen dio izan behar dutela Euskal Herriko musika-tresna gehiago ere. Horregatik, euskal txoko eta ospakizun desberdinen bila abiatuko dela erabakitzen du, instrumentu berriak deskubritzeko asmotan.

#### 2. agerraldia: alboka

Juan Mari Beltrán albokariaren kontzertu batera iritsiko da gure protagonista. Bertan, musikariak instrumentuaren nondik-norakoak azaltzeaz gain, Maurizia, Leon eta Basilio, panderojole, albokari eta trikitilariak osaturiko hirukotearen inguruan ere hitz egingo du. Panderojole eta abeslari ezaguna izan zen Maurizia Aldeiturraga eta txikitatik plazarik plaza

ibili zen. Hasieran bi panderojole ibili baziren ere, ondoren Leon Bilbao albokariarekin hirukotea osatu zuten eta azkenik, pandero, alboka eta trikiti hirukote gisa aritu ziren Maurizia, Leon eta Basilio (Estankona, 2021).

*Porruk albokeagaz*<sup>1</sup> abestia joko da, panderojole baten laguntzaz. Alboka ezagutzeaz gain, Mikelek panderoaren erabilera berri bat deskubrituko du.

### 3. agerraldia: trikitia

Mikel erromeri batean izango da. Bertan, Korrontzi taldearekin egingo du topo: Agus Barandiaran trikitalariak sorturiko folk talde honen helburua euskal musika herrikoari eta hots tradizionalei ikuspuntu moderno eta garaikideagoa ematea da, betiere trikitiba musikan oinarriturik (Korrontzi, 2021).

Fandango bat entzungo da; Korrontzi taldearen *Azpeitiko fandangoa*<sup>2</sup>, zehazki. Fandangoa tradiziozko euskal dantza ezagunenetakoa da, erritmo hirutarra duena. Normalean hiru pauso desberdin dantzatzen dira eta normalean arin-arin erritmo bitarrarekin elkarturik agertzen da, zeinak erritmo kontrasteak sortzen dituen. Bi horien dantza-bikotea euskal dantza askatuaren sinonimoa dela esan daiteke (Sánchez, 2021).

Hainbat neska-mutil ikusiko dira, bikoteak osatuz fandangoa dantzatuko dutenak.

### 4. agerraldia: dultzaina

Oraingoan erraldioen desfile batean izango da Mikel. Horiek lagunduz, “Ezpelur” Iruñeko dultzaineroak izango dira bertan, *Erraldoiak*<sup>3</sup> izeneko kalejira jotzen.

Kalejira, *pasacalles* edo martxa izenez ezagutzen den hori, martxa arin bat da. Bakoitzak bere moduan erritmoari eutsiz, elkarri eskuak emanez kate bat osatuz dantzatu ohi da. Kalez-kale ibiltzeko erabiltzen da nagusiki (Sánchez, 2021). Kasu honetan, kalejira Iruñeako erraldioen konpartsarena izango da. Erraldoiak festa tradizionaletako ikur garrantzitsua dira, orokorrean dultzaina eta txistuaren laguntzaz kalez-kale ibili ohi direnak.

---

<sup>1</sup> Maurizia, Leon eta Basilio, *Porruk albokeagaz* <https://www.youtube.com/watch?v=1Lw9gdECEpU>

<sup>2</sup> Korrontzi, *Azpeitiko fandangoa* <https://www.youtube.com/watch?v=XJjMicqd0Xc>

<sup>3</sup> “Ezpelur” Iruñeko dultzaineroak, *Erraldoiak* <https://www.youtube.com/watch?v=Dya621fVKSc>



## 5. agerraldia: txalaparta

Kasu honetan, Oreka TX bikotearekin egingo du topo protagonistak. Talde honek, txalapartak dituen aukerak ikertzen eta zabaltzen dirau, txalapartaz gozaten eta goza arazten. Musika estilo desberdinekin fusionatzea lortu dute, txalaparta gure mugetatik kanpo ezagutzera emanez (Oreka Tx, 2018).

Txalaparta nola muntatzen den ikusteko aukera izango du Mikelek eta musika-tresna honen ezaugarri nagusienetariko bat inprobisazioa<sup>4</sup> denez, horixe entzungo da. Txalaparta jotzeko arauak oso estuak badira ere, kolpe konbinaketak, hotsaren "tinbre", "tonu", intentsitate eta abiadura aldaketak erabiliz, txalapartariak askatasun handia dute beren irudimen eta inprobisatzeko ahalmena erabiltzeko (Beltrán, 2021c).

## 6. agerraldia: Ttun-ttuna

Iparraldean izango da Mikel, Zuberoan. Orain arte inoiz ikusi gabeko musika-tresna bat ezagutuko du, han bakarrik mantentzen baita bere erabilera. Ttun-ttuna izena duela azalduko diote, baita nola funtzionatzen duen ere. Musikariak, txirula baten laguntzaz, *Aintzina pika*<sup>5</sup> abestia joko du.

### 6.4. ESKALETA

	Agerraldia	Deskribapena	Pertsonaiak	Lekua
1	Sarrera	Mikel logelan euskal musika entzuten	Mikel	Mikelen logela
2	Alboka	Juan Mari Beltránen kontzertura iristen da. Albokaren eta Maurizia, León eta Basilioaren inguruan hitz egingo du. <i>Porruk albokeagaz</i> abestia.	Mikel, Juan Mari Beltrán eta panderojolea	Kontzertua

<sup>4</sup> Bat-bateko saioa Arrasaten <https://www.youtube.com/watch?v=yNZi-P-VSc>

<sup>5</sup> Juan Mari Beltrán, *Aintzina pika* <https://www.youtube.com/watch?v=8uxmZFvl59w>

3	Trikitia	Korrontzi taldearen erromeria batean, Azpeitiko fandagoa entzuten da dantzariak fandagoa dantzatzuz.	Mikel, Korrontzi taldea eta dantzariak	Erromeria
4	Dultzaina	Mikelek erraldoien desfile bat ikusiko du, dultzaineroek kalejira jotzen duten bitartean.	Mikel, erraldoiak eta dultzaineroak	Erraldoien desfilea
5	Txalaparta	Oreka Tx bikoteak txalaparta nola muntatzen duen ikusiko da. Ondoren, inprobisazio bat joko dute.	Mikel, Oreka Tx taldea	Kalean, festak
6	Ttun-ttuna	Musikariak instrumentuaren inguruan azalpenak emango ditu. Ondoren, Aintzina piku abestia joko da txirularen laguntzaz.	Mikel eta musikaria	Zuberoa

## 6.5. JARDUERAK

### 6.5.1. Aurretiko jarduerak

- Has gaitezen ezagutzen!

Burutu beharreko lehenengo jardueretako bat ikasleak kokatzea da; beraz, zer kontzertu motara joango garen azalduko da, bertan aurkituko dugunaren berri emanez. Lehenengo jardueraren xedea, ondoren egingo diren jardueren abiapuntu nagusia izatea da. Hau, ikasleen eta irakaslearen arteko galdera-erantzun metodoa duen hitzaldi parte-hartzaile gisa burutuko da. Euskal musika-tresnen inguruan galdetuko zaie; ea ezagutzen dituzten edo zeintzuk izan daitezkeen. Ondoren, landuko diren bost euskal

musika-tresnen argazkiak erakutsiko zaizkie, banan-banan, eta guztien artean asmatzen saiatu beharko dira (1. eranskina). Ez jakitekotan, irakasleak esango du izena.

Instrumentuaren argazkia arbelean jarriko da eta irakasleak txartel desberdinak aterako ditu musika-tresnen izenekin (2. eranskina). Guztien artean irakurri beharko dituzte eta arbelean dagoen argazkiarekin dagokiona elkartu. Musika-tresnaren nondik-norakoen eta ezaugarrien inguruan eztabaidatuko da.

Horrekin batera, instrumentu bakoitzaren hotsa ezagutu eta identifikatu ahal izateko, musika-tresna bakoitzaren txartela erakusten denean interpretazio bat jarriko diegu (3. eranskina); horrela, txartelean ikusten duten musika-tresnaren hotsa ere ezagutuko dute. Modu horretan, instrumentu desberdinak eta haien ezaugarri eta berezitasunak ezagutzen hasiko dira.

- Aulki musikatuak

Aulki-joko tradizionalaren antzekoa da. Ikasle kopurua adina aulki jarriko dira borobilean, eserlekua kanpoaldera begira dutela eta hurrek beste borobil bat osatuko dute horien kanpoaldetik dantzan eta saltoka biraka ibiltzeko. Jolasa hasi baino lehen, hurrei eskatuko zaie trikitia, txalaparta eta dultzainaren artetik bat aukeratzeko denen artean. Irakasleak edozein musika jarriko du, landutako instrumentuekin zerikusirik ez duena eta haurrak mugitzen hasiko dira, baina aulki-joko tradizionalan ez bezala, kasu honetan irakasleak musika gelditutakoan hiru musika-tresna horien artetik baten soinua jarriko du. Horretarako, lehenengo jardueran entzundako piezak erabiliko dira. Hasieran aukeraturikoa baldin bada haurrak eseri egin beharko dira. Beste instrumentu baten soinua entzuten baldin bada, orduan mugitzen jarraitu beharko dute.

Jarduera honekin, hurrek entzumena landuko dute batez ere, adi egon eta instrumentuaren hotsa identifikatzen jakin beharko baitute. Gainera, mugimendua eta dantza ere jorrazteko aukera izango dute.

- Erritmoa jarraitu

Hiru musika-tresna aukeratu dira: ttun-ttuna, alboka eta txalaparta. Musika-tresna bakoitzaren hotsari mugimendu bat esleituko zaio, aurretik hurrekin adostuko dena. Oraingoan ere, aurreko jardueretan erabilitako piezak erreproduzituko dira. Pieza bakoitza entzuten denean, hurrek dagokion mugimendua egin beharko dute.

Modu horretan, musika-tresna bakoitzak sorturiko soinuak desberdintzeaz gain, motrizitatea lantzeko aukera ere eskaintzen zaie haurrei.

- Nor da nor?

Musika-tresnen argazkiak erabiliko dira jarduera honetarako, baita txarteltxoak ere non instrumentuen izenak idatzita egongo diren. Haur bakoitzak, musika-tresna bakoitza dagokion txartelarekin elkartu beharko du. Horretarako, izenak irakurtzen joango dira, behar izatekotan irakaslearen laguntzarekin.

Ondoren, txartel horiek lurrean kokatuta egongo diren koloretako uztaietan sailkatu beharko dituzte. Kolore gorrian haizezko musika-tresnak, horien perkusiozkoak eta berdean harizkoak sartu beharko ditu haur bakoitzak.

Jarduera honetan, hurrek musika-tresnen ezaugarriak lantzeko aukera dute, instrumentuen familia desberdinak ezagutzen dituzten heinean. Gainera, irakurketa eta idazketa lantzea ere ahalbidetzen du.

### **6.5.2. Ondorengo jarduerak**

- Nor da protagonista?

Ekitaldi musikalean entzun diren piezak erreproduzituko dira banan-banan; zehazki fandangoa<sup>6</sup> (trikitia), kalejira<sup>7</sup> (dultzaina) eta ttun-ttunarenak<sup>8</sup>. Hurrek abesti bakoitzean entzuten dituzten musika-tresnak identifikatu beharko dituzte.

Jarduera honen bidez, entzuketa aktiboa jorratuko dute, hots bakoitza identifikatuz.

---

<sup>6</sup> Korrontzi, *Azpeitiko fandangoa* <https://www.youtube.com/watch?v=XJjMicgd0Xc>

<sup>7</sup> "Ezpelur" Iruñeko dultzaineroak, *Erraldoiak* <https://www.youtube.com/watch?v=Dya621fVKSc>

<sup>8</sup> Juan Mari Beltrán, *Aintzina pika* <https://www.youtube.com/watch?v=8uxmZFvI59w>

- Nongoa naiz?

Ikusitako bost instrumentuak Euskal Herriko musika-tresnak izanik ere, horietako bakoitza leku edo ospakizun jakin batekin lotua izan da. Kontzertuan zehar hurrek ospakizun eta herri desberdinetan barrena bidaiatu dute eta jarduera honek ikusitakoa erreparasatzeko aukera emango die.

Irakasleak, musika-tresna bakoitzaren marrazkia banatuko du hurrek margotu dezaten. Instrumentuak jadanik ikusi eta ezagutzen dituztenez, haien ezaugarri eta koloreak kontuan izanik margotzeko eskatuko zaie. Behin margoturik, arbelean kokaturik egongo den mapa baten gainean, instrumentu bakoitza dagokion eremuan kokatuko dute irakaslearen laguntzaz. Guztien artean eztabaidatu eta adostu ondoren, musika-tresna bakoitzaren ondoan izena eta dagokion ospakizun edo lekua idatziko dute.

## **7. ONDORIOAK**

Lan honekin egin nahi izan den ekarpen nagusia haurrak musikara, eta zehazki zuzeneko musikara, modu ludiko batean hurbiltzea izan da. Badakigu gaur egun egon badaudela hurrei musika irakasteko hainbat bide, baina hezkuntza sisteman Musika Hezkuntzak duen gabezia nahiko agerikoa dela deritzogu. Hori horrela izanik, proposamen didaktiko berri bat erabili nahi izan da hurrekin musika lantzeko.

Hasieratik argi izan dugu ezin izango zela proposamena praktikan jarri, ezinezkoa baita bizi dugun osasun egoeran kontzertu didaktiko bat aurrera eramatea. Haatik, proposamen didaktikoa modu teorikoan planteatua izan da. Hala ere, kontuan eduki dugu benetan aurrera eraman ahal izateko moduko lan bat egin nahi genuela. Kasu honetan aurrera eraman ez izan arren, nahi izanez gero martxan jartzea bideragarria izango litzateke.

Gradu Amaierako Lan honetan sorturiko proposamena aurrera eramaterik izan ez denez, nahiz eta oinarri teoriko sakon bat egin den, ezin izan da ikusi nola funtzionatuko lukeen hurrekin praktikan jarriz gero.

Lanaren hasieran, proiektuarekin bete nahi diren helburu batzuk nabarmentzen dira. Hala ere, ezin izan da helburu horiek bete diren egiaztatu, ez baita benetako praktikarik egiteko aukerarik izan. Testuinguru zehatz bat ez edukitzeak, zailtasunak ekarri ditu lanaren hainbat puntu eta jarduera zehazterako unean, tokian-tokiko ezaugarriak kontuan hartuz egin beharreko lana baita hori, haurren ezaugarrietara moldatuz. Hortaz, Haur Hezkuntzako bigarren etapako haurren ezaugarri orokorrak hartu behar izan dira kontuan lana diseinatzerako orduan.

Edonola ere, proposamen didaktikoaren helburu orokorrak lortutzat jo daitezke; Musika Hezkuntzari garrantzia ematea eta baita kontzertu didaktikoen errekursoaren prozedura erakustea ere.

Musika Hezkuntzak gizakion bizitzetan, are gehiago haurren garapenean, betetzen duen papera funtsezkoa dela argi gelditu da. Zalantzarik ez dago musika Haur Hezkuntzako etapan lantzea ezinbestekoa dela, haurrari ekar diezazkiokeen onurengatik eta baita bere nortasuna eta gustuen eraikuntzan lagun diezaiokelako ere. Musika entzutean, pentsamendua garatzen dihardute eta haur bakoitzak interpretazio bakar eta propioa egiten du. Haur bakoitzaren barnealdean zerbait mugiarazteko gaitasuna izan ohi du musikak;

horregatik, ezinbestekoa da baliabide eta material egokiak erabiltzea, benetako esperientziak eskaini nahi badizkiegu.

Horrekin batera, nahitaezkoa deritzogu irakasleen formakuntza musikalaren beharra. Aurretik aipatu den moduan ezinbestekoa da baliabide egokiak erabiltzea, baina hori gerta dadin irakasleak lan hori garatzeko prest egon behar du. Hots, biak ala biak dira musika irakaskuntzaren arrakastaren giltza.

Zein da gaur egungo errealitatea, bada? Musika Hezkuntzari eskaintzen zaion denbora eta esfortzua ezin aldera daiteke gainerako ikaskuntzei eskaintzen zaienarekin. Haurrek hain berezkoa duten musikarekiko senari askotan ez zaio behar bezala irten eta adierazten uzten, mugatu egiten zaizkie musikaz gozatu ahal izateko aukerak. Horrek, musika zerbait helduena edo zaila dela pentsaraztea ekar diezaioke askori.

Idea horretatik sortu da lan hau: haurren eta musikaren arteko arrakala txikitzen laguntzea, gazteenak musikara hurbiltzeko grinari helduz. Kontzertu didaktikoa haurrak musikara modu ludiko batean hurbiltzeko tresna bikaina izan daitekela ikusi dugu. Egiten ari direnaren zergatia azaldu, haurrak haien ikaskuntzaren parte-hartzaile aktibo bihurtu, benetako esperientziak bizi; horiek dira proposamen didaktiko honen giltzak.

Zuzeneko ekitaldi musikak batez gozatzeko aukera eskainiz, euskal musika-tresnak gertutik ezagutzeko esperientzia luzatzen zaie, gure kultura osatzen duten instrumentuen inguruko ezjakintasuna ekiditzearen nahitik abiatuta. Horrekin batera, ludikotasuna eta gozamenaren hariari helduz, jarduerak didaktikoak bezain entretenigarrieta dibertigarriak izatea lortu nahi izan da. Jarduera horiek, musikaren oinarritzko arloak lantzea baimentzen dutenak dira; hala nola, entzumena, mugimendua edo musika-tresnak. Gainera, kontzeptu musikalak lantzeaz gain, haurrek aukera dute irakurketa-idazketa, arterako konpetentzia edota erabakiak hartu behar dituzten heinean elkarbizitza arauak lantzeko ere.

Lan honetan eskaintzen den kontzertu didaktikoak, izenak dion moduan didaktikoa den heinean, musika arloko zein beste alor batzuetako ezagutza eta eduki desberdinak transmititzeko helburua du. Haatik, ez inoiz gozamenaren eta dibertitzearen gainetik.

Musika Hezkuntzak, modu eraginkorrean eta benetako esperientziez horniturik, haurrengan sentimendu eta emozioak azalarazteko ahalmena du. Baina hori lortzea ezinezkoa da haurrek musika urruti sentituz gero. Hots, musikak eskain diezazkigukeen

onura guztiez baliatu ahal izateko, has gaitzen proposamen eta aukera berriak bilatzen, benetakoak, originalak, eta nola ez, haurren gozamenekoak.



## **8. MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK**

Lan honen gisako proiektu bat aurkezten dudan lehenengo aldia izanik, horrek bidean oztopo bat edo besterekin topo egitea eragin du. Baina, zer da oztopo bat, erronka bat ez bada? Gaitasun eta ezagutza propioak martxan jarritz, haurrak eta musika uztartzen dituen lan hau aurrera ateratzea lortu da.

Diseinaturiko proposamenaren benetako ahulgune eta gabeziak identifikatu ahal izateko, ezinbestekoa litzateke praktikara eramatea. Helburuak, materialak nahiz jardueren planteamendua egokiak diren ala ez ikustaraztea baimenduko luke horrek; laburbilduz, sorturiko proposamen didaktikoa Haur Hezkuntzarako egokia izango litzatekeen ala ez egiaztatzea.

Edozein kasutan ere, hainbat hobekuntza proposamen aipatu ahal dira. Alde batetik, posible da kontzertu didaktikorako egin den musika-tresnen aukeraketa posible ez izatea instrumentuak lortzeko ezintasunagatik edo beste arrazoiren batengatik; horregatik, lan honetan proposatzen diren euskal instrumentuetaz aparte besteren bat aukeratu izana ere posible izango litzateke. Proposamen didaktiko honen formatoa jarraituz, beste hainbat instrumentu anitz aurkeztu daitezke; adibidez, musika-tresna profesionalak edo eskolako musika-tresnak. Bestalde, ikasgelan bertan ere musika-tresnetaz gozatu ahal izateko aukera eskaintzea polita izango litzateke, euskal musika-tresnetariko bat jotzen dakien senideei gelara etortzeko gonbitea luzatuz.

## **9. ERREFERENTZIAK**

237/2015 DEKRETUA. Abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa. 2016ko urterrialaren 15. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria.

Aguirre, R. (2021). Trikitixa. *Auñamendi Eusko Entziklopedia*, 2021. Webgune honetatik berreskuratua: <https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/trikitixa/ar-132068/>

Akoschky, J., Alsina, P., Díaz, M., Giraldez, A. (2009). *La música en la escuela infantil (0-6)*. Editorial GRAÓ.

Aranburu, M. (2021). Ttun-ttun. *Auñamendi Eusko Entziklopedia*, 2021. Webgune honetatik berreskuratua: <https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/ttun-ttun/ar-153646/>

Arguedas, C. (2006). Cuentos musicales para los más pequeños. *Actualidades Investigativas en Educación*, Vol. 6. Webgune honetatik berreskuratua: <https://revistas.ucr.ac.cr/index.php/aie/article/view/9205/17646>

Ballesteros, M., García, M. (2010). Recursos didácticos para la enseñanza musical de 0 a 6 años. *LEEME, Revista de la Lista Europea de Música en la Educación*, núm 26, 2010. Webgune honetatik berreskuratua: <https://ojs.uv.es/index.php/LEEME/article/view/9813/9240>

Barbarroja, M.J. (2009). La música en la Educación Infantil. *Innovación y experiencias educativas*. Webgune honetatik berreskuratua: [https://archivos.csif.es/archivos/andalucia/ensenanza/revistas/csicsif/revista/pdf/Numero\\_14/JANET\\_BARBARROJA\\_1.pdf](https://archivos.csif.es/archivos/andalucia/ensenanza/revistas/csicsif/revista/pdf/Numero_14/JANET_BARBARROJA_1.pdf)

Beltrán, J.M. (1995). Euskal soinu-tresna herrikoien zabalkundea hezkuntza-sisteman. *Eusko Ikaskuntza*, 355-360.

Beltrán, J.M. (2021a). Alboka. *Auñamendi Eusko Entziklopedia*, 2021. Webgune honetatik berreskuratua: <https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/alboka/ar-8158/>

Beltrán, J.M. (2021b). Dultzaina. *Auñamendi Eusko Entziklopedia*, 2021. Webgune honetatik berreskuratua: <https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/dultzaina/ar-55510/>

Beltrán, J.M. (2021c). Txalaparta. *Auñamendi Eusko Entziklopedia*, 2021. Webgune honetatik berreskuratua: <https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/txalaparta/ar-132599/>

Bernal, J. (2005). Apuntes para una nueva Educación Musical en la escuela. *Publicaciones*, 35: 61-73. Webgune honetatik berreskuratua: <http://hdl.handle.net/10481/24134>

- Bernstein, L. (2018). *El maestro invita a un concierto. Conciertos para jóvenes*. (J. P. Fernández-Cortés, itzultz.). Madrid: Ediciones Siruela.
- Díaz, M. (2004). La educación musical en la etapa 0-6 años. *LEEME, Revista de la Lista Europea de Música en la Educación*, núm 14, 2004. Webgune honetatik berreskuratua: <https://ojs.uv.es/index.php/LEEME/article/view/9750/9184>
- Díaz, M. (2005). La educación musical en la escuela y el espacio Europeo de educación superior. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, vol. 19, núm. 1, 2005, pp. 23-37. Webgune honetatik berreskuratua: <https://www.redalyc.org/pdf/274/27419103.pdf>
- Encabo, E., & Rubio, B. (2010). Suena la flauta en... El Magreb. Cuentos musicales para la expresión y la creatividad en el aula. *Arte y ciencia: creación y responsabilidad*, 2, p. 89-109.
- Estankona, I. (2021). Aldeiturraga Zabala, Maurizia. *Auñamendi Eusko Entziklopedia*, 2021. Webgune honetatik berreskuratua: <https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/es/aldeiturriaga-zabala-maurizia/ar-150003/>
- Fernandez, C. (2010). El cuento como recurso didáctico. *Revista digital innovación y experiencias educativas*. Webgune honetatik berreskuratua: [https://archivos.csif.es/archivos/andalucia/ensenanza/revistas/csicsif/revista/pdf/Numero\\_26/CRISTINA\\_GEMA\\_FERNANDEZ\\_SERON\\_01.pdf](https://archivos.csif.es/archivos/andalucia/ensenanza/revistas/csicsif/revista/pdf/Numero_26/CRISTINA_GEMA_FERNANDEZ_SERON_01.pdf)
- Hentschke, L. (2009). ¿Qué es un concierto didáctico?. *Papeles del festival de música española de Cádiz*, núm. 4, 2009, pp. 41-44. Webgune honetatik berreskuratua: <http://www.centrodedocumentacionmusicaldeandalucia.es/export/sites/default/publicaciones/pdfs/conciertos-didacticos-1.pdf>
- Korrontzi (2021). Biografía. Webgune honetatik berreskuratua: <https://korrontzi.net/eu/biografia-2/>
- López, M. B.& Nadal, I. (2018). La estimulación auditiva a través de la música en el desarrollo del lenguaje en Educación Infantil. *Revista Electrónica de Investigación y Docencia (REID)*, 107-124. or. Webgune honetatik berreskuratua: <https://revistaselectronicas.ujaen.es/index.php/reid/article/view/3729/3253>
- Montoya, V. (2002). El origen de los cuentos. *Sincronía*, 2. Webgune honetatik berreskuratua: <http://sincronia.cucsh.udg.mx/montoya02.htm>
- Muñoz, J.R. (2002). El cuento y la canción. *Eufonía: didáctica de la música*, núm 24, 2002, pp. 59-69.

- Oreka Tx (2018). Biografia. Webgune honetatik berreskuratua: [https://www.google.com/url?q=http://www.orekatx.com/bio&sa=D&source=editor\\_s&ust=1622647430509000&usg=AOvVaw1zoz-iqLrNTcX-B5c4QMM](https://www.google.com/url?q=http://www.orekatx.com/bio&sa=D&source=editor_s&ust=1622647430509000&usg=AOvVaw1zoz-iqLrNTcX-B5c4QMM)
- Palacios, F. (2000). Cuentos musicales. Una nueva estrategia pedagógica. *CLIJ: Cuadernos de literatura infantil y juvenil*, 13, 125 (2000).
- Pérez-Aldeguer, S. (2012). *Didáctica de la Expresión Musical en Educación Infantil*. Valencia: LC Books.
- Pérez, J. (2003). Hacia una educación musical para el futuro: el concierto didáctico. *LEEME, Revista de la Lista Europea de Música en la Educación*. núm 11, 2003. Webgune honetatik berreskuratua: <https://ojs.uv.es/index.php/LEEME/article/view/9741/9176>
- Rodriguez, Gloria A, (2016). El cuento musical y las competencias profesionales en el practicum universitario. *Biblioteca Digital Repositorio Académico*, 32, (8) pp. 619-640. Webgune honetatik berreskuratua: <https://www.redalyc.org/pdf/310/31048481036.pdf>
- Romea, C. (1996). Recursos y medios para la enseñanza de la lengua oral en la Educación Infantil. *Lenguaje y Textos*, 9, 31-44. Webgune honetatik berreskuratua: [http://ruc.udc.es/bitstream/2183/8006/1/LYT\\_9\\_1996\\_art\\_3.pdf](http://ruc.udc.es/bitstream/2183/8006/1/LYT_9_1996_art_3.pdf)
- Saenz, I. (2018). 100 años de Leonard Bernstein, 60 años de los Conciertos para Jóvenes. *Sul Ponticello. Revista on-line de música y arte sonoro*, núm 58, 2018. Webgune honetatik berreskuratua: <http://3epoca.sulponticello.com/100-anos-de-leonard-bernstein-60-anos-de-los-conciertos-para-jovenes/#.YlfbcpAzblU>
- Sánchez, K. (2021). Biribilketa - Pasacalles - Kalejira. *Auñamendi Eusko Entziklopedia*, 2021. Webgune honetatik berreskuratua: <https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/biribilketa-pasacalles-kalejira/ar-54160/>
- Sánchez, K. (2021). Fandangoa - Jota - Orripekkoa - Trikitixa. *Auñamendi Eusko Entziklopedia*, 2021. Webgune honetatik berreskuratua: <https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/fandangoa-jota-orripekkoa-trikitixa/ar-64930/>
- Santamarina, M. (2011). Análisis de las concepciones del profesorado de Educación Infantil sobre la enseñanza de la lengua oral: un estudio de caso. *Enunciación*, 16 (2), 87-99. Webgune honetatik berreskuratua: <http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4782108>
- Sarget, M. A. (2003). La música en Educación Infantil: estrategias cognitivo-musicales. *Revista de la Facultad de Educación de Albacete*, núm 18, 2003, pp. 197-209.

Trias, N. (1981). La música como medio formativo y su aplicación en la Educación Escolar.  
*La etapa preescolar. Un mundo maravilloso*. Barcelona: Gatep, pp. 54-64.

## **10. ERANSKINAK**

### 1. Eranskina









2. Eranskina

**DULTZAINA**

**TRIKITIA**



**ALBOKA**

**TTUN-TTUNA**

**TXALAPARTA**

### 3. Eranskina

- Dultzaina: [https://www.youtube.com/watch?v=jx\\_Zaxz2RH8](https://www.youtube.com/watch?v=jx_Zaxz2RH8)
- Trikitia: <https://www.youtube.com/watch?v=en5P-YDbfWE>
- Alboka: <https://www.youtube.com/watch?v=atDr00sTevM>
- Ttun-ttuna: <https://www.youtube.com/watch?v=WmTcE0G1JT8>
- Txalaparta: <https://www.youtube.com/watch?v=i2B9ddL21LU>